



Gobernu Batzordea osatzeko hauteskunde deialdia



Gipuzkoako Gizarte Langintza Elkargo Ofiziala 1982 urtean sortu zen Gizarte Langileen Elkargo Ofizialen sorrera Legea onartu ondoren. (otsailaren 13an Elkargo Profesionalen 2/1974 Legea, abenduaren 26ko 74/1978 Legeak eta apirilaren 14ko 7/1997 Legeak aldatua). Aldez aurretik, 1962 urtetik Gipuzkoako Gizarte Langileen Elkartearen bidez ordezkaturik zegoen kolektiboa.

Gaur egun 674 elkargokide gara, gehiengo handi bat emakumeak, hauen artean entitate pribatuetan eta administrazio publikoan eta kolektibo ezberdinekin lan egiten dezutenak zaudete.

Orain Gobernu Batzordean 4 pertsona gaude eta Estatutuen arabera Batzordeak bost kide izango ditu gutxienez eta 10 gehienez. Arrazoi honengatik hauteskunde hauetara aurkezteko gonbitea egiten dizuegu.

Kolektibo profesional bezala ezagupen asko dugu, bai akademikoki eta bai profesionalki eskuratu duguna. Elkargotik Gizarte Lan kritiko eta militantea sendotzen jarraitu nahi dugu, eskubideen defentsarekin konprometituz eta justizia soziala lortze aldera gizarte eta ekonomia politikan eraginez. Bide honetan lan egiteko kolektibo modura indarrak batu behar ditugu.

Badakigu ez dela erraza bizitza pertsonala eta profesionala kontziliatzea, askotan ez dugu erronka berrietaz arduratzeko denbora edo eta motibaziorik, baina beste



momentu batzuetan bai, beraz egoera honetan aurkitzen bazara Elkargoan informatu eta zure hautagaia aurkezteko gonbitea luzatzen dizugu.

Gizartea eraldatuz doa eta honekin batera gure lanbidea. Gizarte garapena, ardua kolektiboa, dibertsitatearekiko errespetua eta gizarte kohesiorako ekintzak koordinatu eta indarrak batzeko euskarria izan liteke Elkargoa. Gobernu Batzordea eraberritzeko eta lantzeko dauden gaiei heldu ahal izateko eta behar den esparruetan egoteko elkargokideen parte-hartzea behar dugu.

4 urtez behin Elkargoko Gobernu Batzordea berritzen da eta bertan elkargokide guztiek parte-hartu dezakete, honengatik gonbidatu eta animatzen zaituztegu zuen hautagaia aurkeztu dezazuten abenduaren 20a baino lehen.

Elkargoko Estatutuen 60. Artikulua eta ondorengoak jarraituz, Gipuzkoako Gizarte Langintzaren Elkargo Ofizialeko Gobernu Batzordea osatzeko hauteskunde deialdia egiten da.

Elkargoko Gobernu Batzordea



Elkargoko Gobernu Batzordea osatzeko Hauteskunde-deialdia

Gobernu Batzordeak, Elkargoko Estatutueta 60. artikulua, 1go puntuan, diona betetzeko, **Gipuzkoako Gizarte Langintzako Elkargo Ofizialeko Gobernu Batzordeko karguak berritzeko hauteskunde-deialdia luzatzen du**, 2019ko otsaila eta 2023ko otsaila bitartean.

BETE BEHARREKO KARGUAK

- Lehendakaria
- 6 bokal

HAUTAGAI IZATEKO BALDINTZAK

63. artikulua– Kandidaturak

1.– Hautagai bakoitzak baldintza hauek guztiak beteko ditu:

- a) Hauteskundetara ateratzen diren Gobernu Batzordeko postuetatik zehazki zeini dagokion adierazi beharko da (Lehendakaria edo bokalak).
- b) Bertan elkargokideak baino ez dira egongo.
- c) Hautagai bakoitzaren curriculum vitae-a jasoko da.

HAUTESKUNDE EGUTEGIA

2018ko azaroak 9	Hauteskunde deialdia
2018ko azaroak 9	Bozkatzeko eskubidea duten elkargokideen zerrendaren erakusketa
2018ko azaroak 16	Boto-emaileen zerrendaren erreklamazioa egiteko epearen amaiera
2018ko azaroak 23	Boto-emaileen behin betiko zerrenda
2018ko abenduak 20	Hautagaiak aurkezteko epe amaiera
2018ko abenduak 27	Hautagaien erreklamazioa egiteko epe amaiera
2019ko urtarrilak 10	Bozketa
2019ko urtarrilak 17	Hauteskunde-Batzordearen erabakiaren aurkako errekursoaren amaiera
2019ko otsailak 21	Ohiko Batzar orokorra. Karguen izendapenaren berrespena

BOTOA POSTAZ: Elkargoko Estatutueta 66. artikuluan arautua, 2b) puntuan. Deialdia elkargokide guztiei helarazi zaie.

Prozesuko une desberdinei buruzko informazioa web orrian zintzilikatuko da